

# Tontorren arima bilatzen

**A** SPALDITIK genuen zorra Pyrenaicn Europako Tontorrek, mendilerro txiki hori, hain hurbila, zutitu egiten dena itsasoa ikusteko, eta estutu egiten dena Asturias, Cantabria eta Leon-go jendeak biltzeko. Eskukada mendi malkartsu, gutariko askoren mendi-historialari lotua: lehen igoera dotoreren harrotasuna, igoera eta zeharkaldi gogoangarriren atsegina, aterpe estrategikotan pasatutako isilmandatuzko gauren nostalgia, dorre bakartiren artean lainoak lakaintzean zuen lilurapena,..... eta baita hara bere ilusio-sortarekin joan eta sekula itzuli ez zirenen gogorapena ere.

Oraingoan ez goaz deskribatzera ez eskaladarik, zeharkaldirik eta ez eski-ibilbiderik ere. Hori guztiari deskribaturik dago jadanik sekulako gidaliburutan. Europako Tontorren arima bilatzen ahalegindu nahi dugu. Aintzindarien testigantzaren bitartez, Tontorretan bizi, gozatu eta sufritu egin dutenen ohiartzunik gabeko ahotsak bilduz: mehatzariak, makiak eta, batez ere, artzainak, edo, Moranek dioen bezala, Tontorren esentziarekin bibrataraziko gaituen "burutu gabeko argazki hori bilatzen".

Zeren Tontorren mundua bertikala da, berdea, zuria eta urdina, da exigentea eta latza, da misterioitsua eta eskerronekoa.... baina beste edozerren gainetik da gogo-gogokoa. Toponimia bera ere atsegina da oso: argayoak, jouak, llambriak, horcadak, colladinak. Oso erraza da Tontorren xarmak engainatu gaitzan uztea.

Zorra genuen bete gabea; eta zor hori premiazkoa bilakatu da isurialde asturiar osoari mehatxu egiten dion gehiegizko ustiapen turistikoak suposatzen duen arriskua dela eta. Konpromizu hori betetzeko aukeratu egin dugu Tontorrek duten maitale askotariko bat, bere

mendi-esperientziak beti modu hunkigarrian kontatzen dizkiguna. Luis Alejosi eskatu diogu honako ale hau koordinatu dezan, pertsonak aurkitu ditzan, Tontorrek maitemindurik daudenak konbentzitu ditzan, beren gauzak kontatu diezazkiguten. Ematen diogu hitza jarraian.

Pyrenaicako ale berezi hau planifikatzean, oinarriko hiru helburu planteatu genituen: autore berriak aurkitzea, ohizkoak ez diren gaiak tratatzea eta ikerketa-lanak sartzera. Asmo honek bilatze-lan izugarria suposatu zuen, baina proiektura gero eta kolaboratzaile gehiago sartzean handitzen joan zen lagun-talde baten laguntzak gogortua gertatu zen. Hartuean horiek fruituak eman dituzte eta txangoak ere egin ditugu batera. Horrela, berezko kolaborazioak noiz etorriko itxaron beharrean, Mahoma bera joan da mendira. Emaitzak hedatuki konpentsatzen du igoera hau burutzea dedikaturiko ahalegina. Gurekin ados egongo zaretelakoan gaude.

Guretzat ezezagunak diren autoreak kontutan hartzeak eskatu egiten zuen bakoitzari dagokion aurkezpena egitea. Beren historialek beste aspektu bi azpimarratzera eramaten gaituzte: 1º Jende asko dago ekintza baliotsuak egiten dituen; gure erronka da anonimotasunetik ateratzea, beren esperientzien partaide izan gaitezen lortzea. 2º Mendizaletasunak bere garapenaren gandorra lortzen du belaunaldi guztiek batera egiten dutenean aurrera, bakoitzak bere erritmoan noski. Gogoeta hau iragandako denboretatik dator; orduan mugak igaro behar ziren Pirineotako eta Alpeetako gailur altuetan jubilatutalde gogatsu eta aktiboak aurkitzeko. Erdietsi dugu jadanik gailur altu hori zeinak, beste ezer baino lehen, bizitza-kalitatea denotatzen duen.

# Buscando el alma de Picos

**H**ACE mucho tiempo que teníamos en Pyrenaica una deuda pendiente con los Picos de Europa, ese pequeño macizo, tan cercano, que se empina para asomarse al mar, y que se estrecha para unir a las gentes de Asturias, Cantabria y León. Ese puñado de agrestes cumbres, tan vinculado al historial montañero de muchos de nosotros: el orgullo de primeras elegantes, la satisfacción de memorables ascensiones y travesías, la nostalgia de noches de confidencias en refugios estratégicos, el embrujo de nieblas deshilachándose entre las torres solitarias, ... y también el recuerdo de los que allí fueron con su ramillete de ilusiones y nunca volvieron.

En esta ocasión no vamos a describir escaladas, ni travesías, ni recorridos de esquí. Todo eso ya está expuesto en excelentes guías. Intentamos buscar el alma de Picos. A través del testimonio de los pioneros, recogiendo las voces sin eco de los que han vivido, gozado y sufrido en Picos: mineros, maquis y, sobre todo, pastores, o, como dice Morán, "buscando esa foto pendiente" que nos haga vibrar con la esencia de Picos.

Porque Picos es vertical, es verde, blanco y azul, es exigente y rudo, es misterioso y agradecido, ... pero por encima de todo es entrañable. Hasta la toponimia suena a música celestial: argayos, jous, llambrias, horcadadas, colladinas. Es muy fácil dejarse enganchar por los encantos de Picos.

Teníamos una deuda pendiente; la deuda se hace urgente ante el peligro de sobreexplotación turística que amenaza sobre todo a la vertiente asturiana. Para cumplir con ese compromiso hemos elegido a uno de los muchos amantes que tiene Picos, y que siempre nos cuenta sus expe-

riencias montaÑeras de forma emocionada. Hemos pedido a Luis Alejos que se encargue de coordinar el número, que localice gentes, que convenga a los enamorados de Picos para que nos cuenten sus cosas. Le cedemos ya la palabra.

Al planificar este número extra de Pyrenaica, nos planteamos tres objetivos esenciales: descubrir nuevos autores, abordar temas poco habituales e incluir trabajos de investigación. Esta pretensión implicaba una intensa labor de búsqueda, reforzada con el apoyo de una red de amigos que se ha ido ampliando al incorporarse al proyecto sucesivos colaboradores. Tales contactos han fructificado incluso en excursiones conjuntas. De modo que, en vez de esperar la llegada de contribuciones espontáneas, Mahoma ha ido a la montaña. El resultado compensa ampliamente el esfuerzo dedicado a culminar esta ascensión. Confiamos en que compartiréis nuestra opinión.

La incorporación de autores para nosotros desconocidos, requería dedicarles unas líneas de presentación. Sus historiales nos llevan a remarcar otros dos aspectos: 1º) Hay muchas personas que realizan actividades valiosas; nuestro reto es sacarlas del anonimato, lograr que compartan sus experiencias. 2º) El montañismo alcanza la plenitud de su desarrollo cuando todas las generaciones avanzan al unísono, por supuesto, con sus respectivos ritmos. Esta reflexión proviene de tiempos pasados; entonces había que cruzar fronteras para encontrar en las altas cumbres pirenaicas o alpinas entusiastas y activas cuadrillas de jubilados. Ya hemos alcanzado esa elevada cima que ante todo denota calidad de vida.

Txomin Uriarte y Luis Alejos